


5. GAIA: ESTATU DEMOKRATIKOA

1. DEMOKRAZIAREN KONTZEPTUA


- *Demos* (herria) eta *kratos* (gubernua)
- Herriaren gubernua da

Demokrazia hitzak “*herriaren gubernua*” adierazi nahi du. Ideia politiko horrek, funtsean, honako hau ematen du aditzera: *elkarte politikoa osatzen duten guztiek berdintasunez parte hartzen dutela erabaki politikoetan*. Edozein erabaki hartzeko guztien adostasuna lortu behar izanez gero, ordea, gizarte batek ezin du aurrera egin, asko baitira egunero hartu beharreko erabakiak. Gaur egun hedatuenik dagoen sistema-demokratikoa, beraz, *gehiengoaren arauan* oinarriturik dago.

- Herria da botere politikoaren zilegitasunaren iturria
- Ordezkaritza politikoaren bitartez Herria ageriko bilakatzen da Estatuaren egituran
- Gorriz daudenak: ez dira herrialde demokratikoak



- Demokrazia maila neurtzeko: Polity IV azterketa 1-10



2. DEMOKRAZIA EREDUAK

Demokrazia era askotan ulertu daiteke, herrialde gehienak dira demokratikoak baina eredu ezberdinak daude

- Demokrazia liberal-bermatzailea (liberal garantista): liberalismoaren oinarritzko eredu da. Boterearen kontrolean eta norbanakoari egindako gorazarrean oinarritzen da (norbanakoa elementu gorena da).
 - Ezaugarriak:
 - Norbanakoa estatuarengandik babestu
 - Eskubide zibilak: adierazpen askatasuna, jabetza...
 - Botere banaketa
 - Ordezkarrienganako kontrola
 - Gobernatuen oniritzi edo kontsentimendua

- Demokrazia parte-hartzailea: aurrekoari kritika egiten dio. Ezin da norbanakoa era isolatuan ulertu. Erabaki kolektiboek administrazioarekin bat egiten duten eremu bat.
 - Ezaugarriak:
 - Herritargo informatu bat, parte-hartzen duena. Autogobernu kolektiboaren bermea.
 - Deliberazio konjuntua jendartearen partetik erabakiak hartzean.
 - Norbanakoaren garapena politikan parte-hartuz.
 - Sufragio unibertsala eta instituzioen erabilera herritarren partetik.
 - Herri parte-hartzea.
 - Arazoa: nola egin parte-hartzeak funtziona dezan? Nola bilakatu sistema eraginkor?

- Demokrazia lehiakor-pluralista: joko demokratikoa elite batzuen esku geratzen dela kontsideratzen du. Liberalaren kontrakoa, garrantzitsuena eliteak diotena da, ondo prestatuta daudelako.
 - Ezaugarriak:
 - Ongi prestatuturiko eliteak hautatzeko sistema

- Konpetentzia auto-hautatu diren bi politikari talderen artean.
- Hauteslegoaren papera ordezkariak hautatzea da ez gaiak lantzea

3. ESTATU DEMOKRATIKO BATEN BETEKIZUNAK

- Herri subiranotasuna: herriak du botere gorena.
- Gizarte erakunde, ekimen politiko eta legegilean, herritar guztien parte-hartzea ahalbidetu eta sustatzea (balizko estatu-teknokratizazio baten aurrean).
- Elkarte, sindikatu eta alderdi politiko demokratikoak ahalbidetzea.
- Hirugarren belaunaldiko eskubideen aitortpena

4. MOTAK ETA ORDEZKAPEN TEORIAK

- Zuzeneko demokrazia vs. indirektua. Demokrazia-printzipioa zorrozki aplikatuz gero, herritar guztiei eman behar litzaieke hitza garrantzi publikoa duten erabakiak hartzerakoan. Baina zuzeneko demokrazia hori salbuespenezkoa da oso. Elkarte politiko zabal bat ezin da horrela aritu eta, beraz, elkarte politikoaren parte-hartzea zeharkakoa izan ohi da. Hau da, ordezkarien bidez hartzen dira erabakiak, eta ordezkari horiek elkarte politikoaren borondatea islatzen dute.
- Demokrazia indirektua: Ordezkaritza politikoa sortzen da. Ordezkaritza politikoaren bitartez, Estatuaren (sistema politikoaren) egituratik kanpo dagoen norbait edo zerbait Estatuaren jardueran ageriko egiten da. Ordezkaritza modu hori hainbat sistema politikotan agertu izan da historian zehar, baina ordezkari politiko ulertzeko modua ez da beti bera izan; hau da, ordezkari politiko ez da beti herriaren ordezkari zatzat jo. Sufragio zentsitarioa → Emakumeak
- Aginduzko agindua (mandato imperativo) (Komisarioa) vs. ordezkari zatzko agindua (konfiantza)

5. PRINTZIOPIO DEMOKRATIKOAREN ADIERAZGARRIAK 1978KO EK

- Herriaren subiranotasuna (EK 1.2, 66.1,99,117.1 art) Herriaren subiranotasuna aldarrikatzen da. "Subiranotasuna Herriarengan dago"ela esaten du EKren 1.2. artikulua. Subiranotasun hori, Konstituzioa onetsi eta bere gobernu-sistema aukeratzeko erabiltzen du herriak, bai eta ordezkari izango dituen parlamentari eta gobernakideak aukeratzeko ere.
- Herritarrek herri-arazoetan parte hartzeko eskubidea: sufragio unibertzala (EK 23 art) Herritarrek herri-arazoetan parte hartzeko eskubidea dute. Hainbat parte-hartze mota dago, eta, horietarik, bi dira garrantzitsuenak: bozkate-eskubidea, eta kargu nahiz funtzio publikoak betetzeko eskubidea.
- Gizarte pluraltasunaren (aniztasuna) babesa. Demokrazia-printzipioak pertsonen arteko berdintasuna ere bilatzen du. Konstituzio Zuzenbidea 36 Berdintasunak ez du desberdintasun guztien ezabapena eskatzen, gizartearen pluraltasuna ere babesten delako. Berdintasunak bereizkeriaren debekua eskatzen du, bereizkeriarena, baina ez du bereizketa baztertzen, baldin eta bereizketa hori egiteko arrazoi egokiak badaude.
 - Politiko eta soziala (EK 6,7, 22 art)
 - Nazio (EK 2 art)
 - Erlijioso eta ideologikoa (EK 16.1 art)
 - Hizkuntza (EK 20.3 art)
- 1978ko EK HITZAURREA (AITZINSOLASA)
 - Helburuak: Bizikidetzaren demokratikoa, ordena ekonomiko eta sozial justu baten arabera.
- Atariko Titulua (1-9 Art)
 - **EK 1.1** "Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko moduan eratzen da eta askatasuna, justizia, berdintasuna eta politika-aniztasuna defendatzen ditu, bere zuzenbide-antolamenduaren balio nagusiz harturik".
 - **EK 1.2** "Nazioaren subiranotasuna Espainiako herrian datza, eta hortik sortzen dira estatuaren botereak".

Herria da botere politikoaren zilegitasun iturria

Subiranotasuna esanahi desberdina bilakaera historikoan:

- AEB herria da subirano “we the people...”
- Espainian 1812, 1837, 1869: herrian

1845 era 1876: Erregeek eta Gorteek

- **EK 2** “Konstituzioa Espainiako nazioaren batasun zatiezinean oinarritzen da, hura baita espainiar guztien aberri komun eta banaezina “

6. DEMOKRAZIA-PRINTZIPIOAREN ERAGINA (EK 1.2)

I. HAUTESKUNDEAK ETA HERRI-FUNTZIOA

- **23 Art.**
 1. Hiritarrek herri-gaietan parte hartzeko eskubidea dute, zuzenean edo boto orokorraren bidez, aldizkako hauteskundetan askatasunez aukeratutako ordezkarien bitartez (Bozkatze pasiboa)
 2. Era berean, baldintza berdinetan herri-funtzio eta -karguetara heltzeko eskubidea dute, baldin eta legeek adierazten dituzten eskakizunak betetzen badituzte (bozkatze aktiboa)

ZUZENBIDE ESTATU SOZIAL ETA DEMOKRATIKOA (1.1 Art)

- **6. Art.** “Alderdi politikoek politika-aniztasuna adierazten dute, herri-borondatea osatzen eta gauzatzen laguntzen dute eta politikan parte hartzeko oinarritzko bitartekoak dira. Horien sorrera eta jarduera libre dira, Konstituzioaren eta Legearen errespetupean.”

PARTE HARTZEKO BESTE AUKERA BATZUK

- **7. Art** “Langileen sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek euren interes ekonomiko eta sozialen babes eta sustapenean lagunduko dute. Horien sorrera eta jarduera libre dira Konstituzioaren eta Legearen errespetupean. Horien barne egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.”

Alderdi politikoen funtzioa (EKren 6. eta 22. artikulua eta 54/1978 Legea). Alderdi politikoen funtzioa zera da: gizarte zibilaren eta gizarte politikoen arteko bitartekotza egitea. Herritarren aldarrikapenak egitasmo politiko global batean islatzen dituzte eta sistema demokratiko batean FUNTZIO OSO GARRANTZITSUAK betetzen dituzte:

- a) pluraltasun politikoa islatzen dute;
- b) herri-borondatearen eratzten eta adierazten parte hartzen dute;
- c) parte-hartze politikorako tresna oso garrantzitsua dira.

Alderdi politikoak elkarte pribatuak dira, eta horiei askatasun osoz atxiki dakieke edozein. Baina, konstituzio-sistematan zenbait funtzio publiko garrantzitsu betetzen dituztenez, dirulaguntza publikoa jasotzeko eskubidea dute, lortutako boto eta aulkien arabera (Alderdi politikoen finantziarioari buruzko LO).

(3) Alderdi politikoen ezaugarriak gizarte demokratikoetan. Zer eskatzen zaie?

1.- Alderdi politikoei Konstituzioa eta legeak betetzea eskatzen zaie, baina horrek ez du esan nahi haiekin ados egon behar dutenik. Horien aurkako izan daitezke, bai eta haien aldaketa edo indargabetzea bultzatu ere.

2.- 1978ko alderdi politikoen legeak eskatzen duenez, alderdi politikoek egitura eta funtzionamendu demokratikoa izan behar dute eta, beraz, afiliatu guztiek biltzar bat izango dute organo nagusi. Alderdi politiko bateko edozein kide izan daiteke biltzarreko hautesle edo hautagai; edozein kidek du eskubidea, orobat, alderdiaren ekintzei eta egoera ekonomikoari buruzko informazioa jasotzeko.

MOTAK ETA ORDEZKAPEN TEORIAK

- Zuzeneko Zuzeneko demokrazia vs. indirektua
- Demokrazia indirektua: Ordezkaritza politikoa sortzen da
- Aginduzko agindua (mandato imperativo) (Komisarioa) vs. ordezkaritzazko agindua (konfiantza)
- **Ordezkatze politikoaren ezaugarri nagusiak:**
 - Legebiltzarra: ordezkatze erakunde garrantzitsua.
 - O. P. da botereari zilegitasuna ematen diona.
 - O. berdintasun printzipioan oinarritzen da. Guztiak igualak eskubide zibil eta politikoekin
 - Agintaldia bukatu arte, legebiltzarraren hautapena ezeztatu ezina da
 - Alderdi politikoen garrantzia

ORDEZKARITZA

- Konstituzionalismo demokratikoa ordezkartzan oinarritzen da; ordezkarien eta ordezkatuaren arteko loturan.
- Zer esan nahi da? Ordezkariak hautatuak direla hauteslegoaren sufragio unibertsalaren bidez, aldizka ospatzen diren hauteskunde libreetan.
- **Ordezkaritza demokraziaren funtzionamendurako osagaiak:**
 - **ALDERDI POLITIKOAK:** hauteskunde eskaintza arrazionala eta erabilgarria egiten dute. Horretarako lanabes dira.
 - **HAUTESKUNDE SISTEMA:** hauteslegoaren erabakia arrazionala eta erabilgarria egiten duen baliabidea
- **Ordezkaritza demokrazietan bi osagai:**
 - **HAUTESLERIA / HAUTESLE GORPUTZA:** hautesleria eta herria ez dira berdinak. Haur bat herriaren parte da, baina ezin du botorik eman, atzerritarrek ere ez, dementzia jakin batzuk dituzten pertsonak ere ez.
Herria dira elkarte politikoa osatzen duten pertsona guztiak. Zuzenbide-estatuetan herriaren baitan dago subiranotasun nazionala, eta harengandik eratorri dira Estatuaren botere guztiak (EKren 1.2). Teoria konstituzional modernoak bereizketa garrantzitsu bat egiten du:
 - a. herritar aktibo edo hautesleak = HAUTESLERIA
 - b. elkarte politikoetako kideak = HERRIA
 - **HAUTESKUNDEAK:** herritarren parte-hartze era "garrantzitsuena".

HAUTESKUNDE SISTEMA

Hauteskunde-sistema da, erabaki-multzo bat, bozkatzearen adierazpena eta adierazpen horrek eragindako ondorioak arautzen dituena. Honako hauek erabakirik garrantzitsuenak dira: a) aulkien kopurua, hauteskunde-barruti kopurua eta hauteskunde-barruti bakoitzari dagokion aulki kopurua; b) aulkia lortzeko gutxieneko kopurua (hauteskunde hesia); c) hauteskunde-formula, hau da, behin botoak zenbatu eta gero ordezkariak izendatzeko erabiltzen den sistema.

- Hauteskunde sistema: hautesle gorpuaren borondatea juridikoki sortzen duen prozedimendua.
- 4 osagai:
 - Hauteskunde era:
 - Gehiengodun sistemak
 - Sistema proportzinoalak
 - Bete beharreko eserleku zenbakia
 - Hauteskunde barrutiak (eserlekuen banaketarako)
 - Eserleku bat lortzeko lege-langa egotea ala ez.

GEHIENGODUN SISTEMA

- Garaile geratzen den zerrendari emandako eserlekuak (orokorrean barruti uninominalak).
- **Bi mota** daude:
 - Gehiengodun sistema erlatiboa (itzuli bakarreakoa). Alderdibitasuna nagusitzen da eta gehiengo egonkorrak.
 - Erabateko gehiengodun sistema (itzuli bikoitzeko sistema). Aurreko ondorioak ez dira hain nabarmenak. Barruti plurinominaletan gutxiengoaren ordezkariaren bat lortzen da.
- **Ezaugarriak:** gutxiengoak kaltetzen. Erabateko gehiengo absolutuko gobernuak eta alderdibitasuna.

SISTEMA PROPORZIONALA

Arabar baten botoak esaterako gureak baina 3 aldiz gehiago balio du. Sistema proportzioanla martxan dagoelako euskadin eta araban gutxiago direlako

- Alderdi bakoitzak eserleku zenbaki zehatz bat lortuko du lortutako boz kopururaren proportzioaren arabera.
- Barruti plurinominalak daude
- Hautagai zerrendak bete behar diren eserleku beste izen eduki behar du

D'HONDT SISTEMA

Alderdikako zerrenden bidezko ordezkari proportzionaleko hauteskundeetan hautetsiak banatzeko metodo bat da, batezbesteko handiena darabilena. Victor D'Hondt matematikariak sortu zuen, eta harengandik hartu du izena. D'Hondt metodoak alderdi politiko handien alde egiten baitu neurri batean, alderdi txiki banakatuei kalte eginda.

- Hautagaien zerrenda bakoitzak lortu duen boz-kopurua zenbatu ondoren, emaitza hori zenbaki kardinalen artean zatitu egiten da, batetik, barruti horretan hautatu beharreko aulki kopurura arte.
- Eserlekuak zatidura handienentzat dira.

II. ERREFERENDUMA

Erabakiak hartzeko PROZESU honetan hiritarrek sufragio eskubidearen egikaritzaren bidez hartzen dute parte, proposamen batekiko adostasuna edo ez-adostasuna adieraziz. Garrantzi berezia duten zenbait erabaki politiko hartzerakoan, zilegi da herritarrei Erreferendum bidez kontsulta egitea. Are gehiago, kasu batzuetan, nahitaezkoa da kontsulta hori, hala nola: Konstituzioa sortu eta aldatzerakoan, estatu-mailako erreferenduma antolatu beharra dago; Autonomien Estatutuak sortu eta aldatzeko prozesuetan, Autonomia Erkidegoko biztanleei galdetu behar zaie. Erreferendumean, erroldatuta dauden herritar guztiek parte hartuko dute bozkatze unibertsal, aske, berdin eta sekretupekoaren bidez.

- **92. Art**
 1. Garrantzi handiko erabaki politikoak hiritar guztien kontsulta-erreferendumean jar daitezke.

2. Referendumaren deialdia Erregek egingo du, Gobernuak presidentearen proposamenen, aldez aurretik diputatuaren Kongresuak baimendurikoa.
3. Lege organiko batean Konstituzio honetan aurreikusitako referendum eren baldintzak eta prozedura arautuko dira.

- **EK 149.32 Art**

1. Estatuak erabateko eskumena du:

Herri-kontsultak erreferendumaren bidez egiteko baimenean

III. HERRI-EKIMENA

Tresna horren bitartez, herritar-talde batek, zuzenean, parlamentura eraman dezake lege proposamen bat, parlamentariak edo legebiltzarkideek eztabaidatu dezaten.

- Salbuespeneko tresna: “gutxiengo baten demokrazia”
- 500.000izenpe Estatu mailan
- 30.000 Euskadiko Autonomia Erkidegoan
- Lege organiko bidez arautu behar dena ezin da aurkeztu
- Zerga eta nazioarteko gaiak ezin dira eskatu

7. DEMOKRAZIAREN KRISIA

- Zertan islatzen da? Herriak erabakitzen du?
 - Subsistema politikoa Vs subsistema ekonomikoa
 - Neoliberalismoak demokrazia ahalbidetzen du?

CRISIS DE LA DEMOCRACIA:

CASTORIADIS, Cornelius (2005), Escritos políticos. Madrid, Los libros de la catarata: Más allá de las posiciones de los teóricos clásicos de la democracia liberal, hay un amplio consenso en torno a la idea de que la clase política hace tiempo que dejó de representar la voluntad de la ciudadanía para ponerse al servicio de los intereses de unos partidos políticos con estructuras poco democráticas

SUBIRATS, Joan (2007) Democracia, participación ciudadana y transformación social. En: Pedro Ibarra e Igor Ahedo (editores). Democracia participativa y desarrollo Humano. IISJ de Oñati/Dykinson, pp. 23-35: Los poderes económicos y los mercados globalizados, y los procesos de fragmentación del poder provocan una deslegitimación de las instituciones formales que siguen ancladas en sus territorios nacionales, causando nuevas desigualdades y exclusiones políticas

JAUREGUI, Gurutz (2013) Hacia una regeneración democrática. Propuestas para la supervivencia de la democracia. Madrid. Catarata: La visión pluralista competitiva de la democracia que defiende que “la democracia es demasiado importante para dejarla en manos de los ciudadanos” tiene que ser sustituida por la idea de que “la democracia es demasiado importante para dejarlas –solo- en manos de elites políticas”